


PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

3.PRAKTIKA: BENDAIK

Egilea: Gorka Vallejo



Praktika honetan ikasleak burutuko dituen zereginak:

1. Bendai bat egiteko materialen identifikazioa (igeltsua, harizko benda, bendai autoitsaskorra, etb).
2. Bendai mota ezberdinen teknika burutzea:
 - ✓ Bendai zirkularra.
 - ✓ Bendai kiribila.
 - ✓ Alderantzizko kiribila.
 - ✓ Zortzi itxuradun bendaia
 - ✓ Buruzka itxurako bendaia.
 - ✓ Bendai errekkurrentea.

Beharrezko materiala:

- Kotoizko benda.
- Benda elastiko porotsua (Crepé motakoa).
- Artaziak (benda mozteko).



Aurkibidea:

1. Benda motak
2. Indikazioak
3. Kontzeptu fisiopatologikoak.
4. Gaixoaren balorazioa.
5. Erizainaren helburuak.
6. Gaixoaren prestakuntza.
7. Ekipoa. Materiala.
8. Gauzatzea.
9. Oharrak.

1. Benda motak

Bendaia: Gorputzeko atal bat edo gehiago eusten duen benda batez egindako lotura. Lotura hau egiteko hainbat Material-benda mota daude:

- **Crepé motako benda**: oinarri sendoa eman dezake; materiale elastikoz prestaturiko benda porotsu komertziala. Apositoak finkatzeko, bendai konpresiboak egiteko, sendaketak estaltzeko, artikulazioak eusteko eta finkatzeko,...erabiltzen da.



- **Gasa motako benda (Harizko benda)**: Hariz egindako benda porotsu eta indartsua. Gorputzeko ataletara ondo egokitzen da eta askotan aposituak finkatu eta mantentzeko erabiltzen da.



- **Tensoplast**: autoitsaskorra den benda porotsua. Gorputzen forma eta egituretara ondo egokitzen da. Asko erabiltzen da artikulazioak eusteko. Orkatilako bihurrituetan, adibidez.



- **Velban**: Normalean, Crepé motako benda azpian edo igeltsu azpian jartzen den kotoizko benda babeslea.



http://mediateca.educa.madrid.org/imagen/ver.php?id_imagen=f9yeoif2gpbkc3gc

- **Kerlix** motako gasa: Bendai hezeak jartzeko erabiltzen da, farmako eta pomada topiko ezberdinekin bustita (furacin, silvederma, trombocid, etabar).

2. BENDAIEN INDIKAZIOAK

-Mindutako aldearen mugimendua mugatzeko edota saihesteko jartzen dira.



- Ferulak eta apositoak finkatzeko.
- Gorputzeko edozein ataletan euskarri funtzioa betetzeko.
- Presioa eragiteko.
- Gorputzera trakzio aparatuak finkatzen laguntzeko.
- Gorputz adarretik bihotzerako odol emaria baimentzeko eta laguntzeko.

3. KONTZEPTU FISIOPATOLOGIKOAK

1-**Muskulu-tonua edo gihar-tonua**: osasuntsu dauden muskulu guztietan amankomuna den bizitasun edo tentsio egoera normalari deitzen zaio. Ehun muskular batzuen kontrakzioa eta beste batzuen erlaxazioa gertatzen da; honek sendotasun eta finkotasun potentziala baimentzen duelarik. Askotan, muskulu tonua murriztu egiten da gaixotasun batzuen ondorioz (Miastenia Gravis gaixotasunean, adibidez), eta ohean burutzen den atsedenaldira oso luzea den kasuetan (oheratutako gaixoetan).

Bestaldetik, gaizki finkatutako bendeiek kontrakzioak edo artikulazioen posizio anormalak eragindako fibrosiak edota zauritutako muskuluen laburpen edo luzapenak eragin ditzakete ere bai.

2-Azal gaztea elastikoa eta zabalgarria da. Urteak pasatu ahala, zenbait aldaketa nabaritzen hasten dira:

Azala argaldu egiten da, zuntz elastikoak gutxitzen dira eta azal azpiko ehunen gantza desagertzen da. Guzti honek zimurren agerpena eragiten du. Bestaldetik, gorputz tenperaturaren erregulazioan eta ehunen zelulen elikapenean, larruazalaren odol emaria oso garrantzitsua da. Larruazalera heltzen den odol-emaria oztopatzen denean, zelulen heriotza eta ultzeren agerpena baimentzen da. Zelulen heriotza ematen denean, nekrosia sortzen da. Adibidez, bihotzeko infartuan, minutako zelulak betirako hiltzen dira, nekrosiak eraginda. Hildako zelulek betetzen zuten funtzioa betirako desagertzen delarik.

4. GAIXOAREN BALORAZIOA

1-Jarritako bendeiak, minutako gorputz atala finkatu behar du; baina gutxi bada ere, ezinbesteko mugimendua baimendu behar du (bendai batzuetan, ordea, erabateko immobilizazioa bilatzen da). Alde distalera heltzen den odol emaria kontrolatzeko, bendeiak maiz berrikusi behar dira. Adibidez, igeltsua jartzen den kasuetan, odol zirkulazio egokia dagoela kontrolatu behar da, iskemia (odol emariaren murrizketa edo geldiketa) eman ez dadin.

2-Bendaia burutzeko erabili den teknika, proposatutako efektua lortzeko egokia den berrikusi behar da. Aztertu eta arakatu beharra dago bilatzen dugun efektua lortzen den.



3-Gaixoaren egoera emozionala eta fisikoa aztertu behar da, tratamendua barneratzeko dituen zailtasunak aztertuz.

5. ERIZAINAREN HELBURUAK


- Gaixoaren antsietatea (herstura) eta beldurrak murriztea.
- Erosotasun fisikoa erraztea.
- Gorputzaren lerrokadura mantentzea.
- Bendaiak bere funtzio zehatza (ezberdina kasuaren arabera) betetzen duela frogatzea (adb euskarria edo inmovilizazioa).
- Estasi (geldialdi) benosoa saihestea.
- Hezur irten-uneak babestea eta larruazaleko bi eremuren arteko igurzketa saihestea babesaren bidez. (Velban motako kotoizko bendaiarekin, adibidez).

6. GAIKOAREN PRESTAKUNTZA

Mikroorganismoak eremu bero, heze eta kutsatuetan ugaltzen dira. Zauriak aseptikoki sendatu behar dira bendaia jarri aurretik. Bendaiak alde garbi eta lehorrean jarri behar dira. Ez da lodiegia edo handiegia izan behar, berotasunak hantura areagotu dezakeelako, sendaketa atzeratuz. Materiale porotsuek airea kanporatzea baimentzen dute, ehunaren tenperatura mugatuz. Hori dela eta, benda gehienak porotsuak dira.

7. EKIPOA. MATERIALA

- Aipatutako bendak (helburuaren arabera, beharrezkoa dena aukeratu).
- Medikamenduak, sendaketa materiala, beharrezkoa den ekipoa.
- Zinta itsaskorra edo esparatrapua.



- Grapak edo klipak (bendai mota batzuetan finkapena egiteko. Beste batzuetan, esparatrapua erabiltzen da).

8. GAUZATZEA

1- Bendaia jarriko dugun gorputz aldea, **modu funtzionalean** jarri. Modu honetan, egonezinak eta itxuragabeziak saihesten dira eta era berean gaixotatuko aldera odol emaria hel dadin errazten da.

2- **Velban, kotoia edo babes materialea** beharrezko puntuetan jar ezazu (azalari atxikituta gera daitezkeen aldeak edo hezur irtenuneak babesteko). Presioak eta igurzketak larruazalean traumatismo mekanikoa eragin dezake (zauriak eta erredurak).

3- Bendaia alde **distaletatik proximaletara** jarri behar dira, odol emariaren norabidean, itzulera benosoa baimenduz eta bihotzeranzko odol-fluxua areagotuz. Modu honetan, batez ere, beheko gorputz adarretan jartzen dira.

4- Bendaia jartzerakoan, **presioaren aplikazioa uniforme** izan behar da. Zinta edo grapekin finkatu. Uniformea ez den presioak, odol emaria oztopa dezake eta era berean elikadura zelularra eta sendaketaren atzerapena eragiten du. Ondo finkatutako bendak, bendaia alde batera edo bestera mugi dadin saihesten du eta zauriak eragin ditzakeen igurzketa eta azal urratzeak saihesten ditu.

5- Posiblea den kasuetan, **gorputz-adar bukaera aske utzi**. Hau ezinezkoa bilakatzen da zauritutako aldea distala denean; esaterako moztutako besondo edo hankondoan. Orkatileko bihurrituetan edo zaintiratuetan jartzen den bendaian behatzak libre uzten dira.

6- Gehienetan erabiltzen diren **BENDAI EREDUAK**:

A) ZIRKULARRA/ BIRIBILA: Bendaren buelta bakoitza, aurreko buelta bukatzen den lekutik gora eman behar da. Honela, buelta bakoitza, bendaren zabaleraren parekoa da. Bendaia hasi eta bukatzen den eremua finkatzeko erabiltzen da. Adibidez, besoko zauri bat babesteko erabili daiteke.



B) KIRIBILA (ESPIRALA): Bendaren buelta bakoitzak, aurreko bueltaren zati bat estaltzen du, gorputz-adarrean segida proximala lortuz (goranzko forman hedatuz). Gorputzeko itxura eta forma zilindrikoa duten aldeetan erabilgarria da; atzamarra, eskumuturra, besaurrea, enborra. (erredura bat estaltzeko, bendai konpresiboak egiteko, etabar).



C) ALDERANTZIZKO KIRIBILA: Hasieran bendai kiribil normal bat egiten da (goranzko norabidean). Hau bukatutakoan, bendaiaren norabidea aldatzen da beherantza biratuz eta kiribil motako bendaia alde proximaletik distalera eramaten da. Itxura konikoa duen gorputz zati bat bendatzeko erabiltzen da; esate baterako, izterra, besoa edo besaurrea. (Adibidez, besoan jarritako ferula bat eusteko).



D) 8 ITXURADUNA: 8 baten itxura duen bendai hau artikulazio zehatz batzuetan jartzen da. Artikulaziopean finkatzen da kiribilean burututako zenbait buelten bidez. Ondoren, artikulazioaren gainetik buelta bat ematen da eta gero goitik eta behetik (aldika) artikulazio osoa estali egiten da. Artikulazioen ingurua inmobilizatzeko erabiltzen da. Bendai mota hau, klavikulan eta ukondoan jartzen da.

E) BURUXKA (ESPIGA) BENDAIA: 8 itxuradun bendaiarekin antzekotasunak ditu. Baina buruxka motakoak estaltzen duen aldea handiagoa izaten da (adb, aldaka). Erabilgarria da batez ere, erpua, aldaka, izterondoak, besaburua eta leporako.



F) ERREKURRENTEA: Bendaia modu zirkularrean emandako bi bueltekin hasten eta finkatzen da. Ondoren, benda, hasierako bueltekiko norabide perpendikularrean pasatzen da atzetik-aurrerantz eta aurretik-atzerantz. Buelta guztiak gainjarri behar dira alde osoa estalita gera dadin. Azkenik, hasierako buelten gainera hasita buelta zirkularren bidez finkatu eta lotzen da. Bendai mota hau buruan, besondo/hankondo edo atzamar batean aposito bat finkatzeko erabiltzen da. Oso erabilia anputazio ondorengo muinoietan.



9. OHARRAK

1-Zirkulazio arazoek eragin ditzaketen zeinuak antzemateko, bendaiak maiz berrikusi behar dira. Zurbiltasuna, eritema (gorritasuna), zianosia, andeza (edema), ehunen hoztasuna eta inurridura (hormigueo) sentsazioa agertzen diren ikusi eta aztertu.

2-Jariakin edo usain kiratsek presio edo zoldura / infekzio puntu bat agerian utz dezakete.

ZOLDURAK SAIHESTU

1-Zikindutako bendek zoldura eragin dezakete zauri baten gainean jartzen ditugunean. Bendaia burutzeko erabiltzen diren material guztiak garbi mantendu behar dira. Behin baino gehiagotan erabiltzen direnak (gaixo berdinean), ur eta xaboi beroaz garbitu daitezke. Garbitasuna posiblea ez den kasuetan (zornea, odola,...dagoenean), material garbi eta esteril berria erabili.

Gaixoa etxeratzean esterilizazioa ezinezkoa izaten da. Kasu honetan, zauri gainean aposito esterilak jartzearen garrantzia azpimarratu behar da. Modu berean, bendaia ahalik eta garbien mantentzea ere garrantzitsua dela azaldu behar zaie eta asko zikinduz gero, aldatzea komeni dela azpimarratu behar zaie.

2-Bendai bat burutzen denean neurri aseptikoak jarraitu behar dira (teknika esterila). Zauri bat dagoenean, sendaketa egin, aposito esteril bat jarri eta ondoren bendaia ezarri.

3-Bendaia jarri aurretik eta ondoren eskuak oso ondo garbitu behar dira. Bendaia kentzen denean aposito zikinak poltsa batean sartu eta ondo itxi, kutsatutako materiala baita.

AZKEN OHARRAK

1-Gaixoa bendaiekin etxeraten denean, teknika azaldu.

2-Bendak non erosi eta nola garbitu behar diren azaldu.

3-Odol zirkulazio edo edema arazoak daudenean (kontraesanda ez dagoen kasuetan) zauritutako aldea pixka bat altxatzea komenigarria dela esan behar zaio gaixoari, odol emaria errazteko eta hantura edo inflamazioa murrizteko. Edemak, bendaia estuegi dagoela adierazi dezake. (itxulera benosoa murrizten da, odola kolpatzen da eta gorputz adar horren inflamazioa nabaria izaten da).

4-Bendaiak estutasun maila minimo bat izan behar du; hala ere, bendatutako aldean zurbiltasuna, sentiberatasun eza edo mina agertuz gero, erizaina berehalakoan abisatu beharraren garrantzia aipatu.

BENDAI HEZEAK

Sendaketa eta gaixotasun dermatologikoetan hantura, infekzioa, edema edo hazkura murrizteko erabiltzen dira. Honetaz gain, larruazala garbitzeko eta zolduren tratamenduetarako erabili daitezke. Bestetik, zauri mota ezberdinak estaltzeko sarritan erabiltzen dira, lortzen duten efektu freskagarri edo desbridanteagatik.

Bendai mota hauetan suero fisiologikoa isuri daiteke edota agintzen diren medikamendu edo pomada antibiotikoak. Erabilitako materialak ez du kotoirik izan behar, honek partikulak askatzen dituelako eta zauri edo larruazalean hondakinak uzten dituelako, zoldurak baimenduz.

Bendai dermatologiko hezeak:

- 1-Soluzioa giro tenperaturan erabiltzeko prestatu.
- 2-Bendaia soluzioan murgildu (gutziz).
- 3-Ohea izara edo eskuohialekin babestu.
- 4-Bendaia lauskitu (bustita egon behar da, baina tanketa saihestu).
- 5-Bendaiak geruza mehetan gainjarri (2-4 geruza).
- 6-Bendaia kendu, berriro busti eta 3-5 minuturo ezarri 20-30 minututan zehar.

Hala ere, aipatu beharra dago, sendaketa batzuetan, bendai hezeak jartzen eta mantentzen direla hurrengo sendaketa egin arte. (12 edo 24 ordu).

Erosotasuna bultzatu:

Larruazalaren hanturan minaren agerpena leuna izaten da, zenbait egoera berezietan izan ezik (adb. Herpes Zoster-aren kasuan). Analgesiko bat eman daiteke bendai eta medikazio hauek ezarri aurretik, minak eragindako egoera desatsegina hobetzeko.

Hazkura azalaren hanturetan agertzen den eragozpenik handiena da. Hazkura leuntzeko:

- 1- Hotza aplikatu (zuzenean, ez) baso-uzkurketa emateko.
- 2- Xaboiak eta garbigarriak azal lehorretan saihestea garrantzitsua da; olio bainuak erabili.
- 3- Bainu epel batekin larruazala hidratatu eta ondoren lozio biguntzaile bat eman.
- 4- Freskagarriak, arinak eta mugimendua eragozten ez duten arropak erabili.
- 5- Atzazalak labur mantendu behar dira, zauriak egiten baitira hatz egiterakoan.
- 6- Gela fresko mantendu behar da (20°C) eta hezetasuna areagotu (%30-40).

ERREDURETAN ERABILTZEN DIREN BENDAIK

Erredura batean kontutan hartu beharreko faktorerik garrantzitsuenak, larruazala suntsitu edo zauritu den eremuan gaixoak zoldurei aurre egiteko gaitasuna galtzen duela da. Era berean, gorputzeko beroa erregulatzeko arazo asko agertzen dira.

Hasierako zaurien zainketan *helburuak* hauexek dira:

- 1-Zauria garbitzea, ehun hilak kentzea eta murriztea edota geratu izan diren zikinkeriak alboratzea; bakterien ugalketarako ingurune bezala joka baitezakete.
- 2-Azalaren deuseztapen handiagoa saihestea.
- 3-Gaixoaren erosotasunik handiena lortzea.

Gaur egun estalki meheak eta arinak erabiltzen dira, agente topikoekin kontaktua areagotzeko, ehunen desbridamendua eta zikinkerien kanporatzea erraztuz.

Normalean erabiltzen diren bendak medikazio topiko batez bustitako gasadun kapa bakarrez osaturik daude edota gasa batean aplikatu eta ezarri ondoren, benda batez finkatzen dira. Kerlix motako gasak erabili daitezke benda heze hauek egiteko ere bai.

Orokorrean bendaren aldaketa prozesu mingarria izaten da eta analgesikoen erabilpena gomendagarria izaten da. Analgesikoak, prozedura burutu baino 30 minutu lehenago eman behar dira, efekturik handiena prozedura burutzean lortzeko. Erredura handietan, lehenengo sendaketak mingarrienak izaten dira eta batzuetan anestesia orokorrarekin egiten dira ebakuntza-gelan.

Bendai berria aplikatu baino lehen orbainaren eta hildako ehunen desbridamendua burutu behar da. Erredura-bendaietan eta sendaketetan gehien erabiltzen diren medikazioak Silvederma pomada eta Furacin (nitrofurazona) izaten dira.

Garbiketak burutzeko suero fisiologikoa erabiltzen da. Kasu hauetan benda hezeak erabili daitezke aurretik aipatu ditugun medikazioekin. Hezetasuna mantentzeko eta zauria garbitzeko, pikortadura ehun eta injertoetan suero fisiologikoa erabili daiteke ere bai.

Zauria ondo garbitu ondoren tulgrasum (orbaintze prozesua errazten du) deitzen den sare moduko materiala erabili daiteke da (batzuk antibiotikoak dituzte) gasak zaurietara itsatsi ez daitezen. Material oliotsu honen gainean medikazioarekin bustitako gasak gainjartzen dira eta ondoren gasa motadun bendak edo crepé gasak gainetik jartzen dira zauria inguratu eta babesteko.

Zauri eta sendaketa hauek inguratzeko eta estaltzeko ez dira plastikoak erabili behar, likidoen lurrinketan eragozpenak agertzen direlako, zauriaren puntuan tenperatura igoarazten dutelako eta honek deserosotasuna eragiten duelako zolduren agerpena areagotuz. Horregatik, benda porotsuak erabiltzen dira.